

"Ailegatzen denak horrenbertzeko aurrerapena du pentsatzen dugunarekiko, gure intentzioekiko, inoiz ez garela gai izanen hura harrapatzeko, ezta bere benetako izaera ezagutzeko ere."

Rilke (de "La Estética de la desaparición", Paul Virilio).

M. Pavi-ren "Jazariar Hiztegia"-ren inguruko kronikek Ateh printzesa dute mintzagai. Bere betazalak jazariar alfabetuko letrekin pintatuak zeuden, bikainak bezain hilgarriak. Inork ezin zion aurpegira begiratu, heriotza berehalakoan ailegatuko zitzaion, bertzela. Egun batean opari berezia jaso zuen. Gatzetan landutako bi ispilu ziren: bat motela, iragana islatzen zuena, eta bertzea arina, etorkizuna erakusten zuena. Goiz batean, ernatzerakoan, bi ispiluetan begiratu zuen bere burua eta bat-batean hil zen.

Ispiluek alfabetuaren hizkiak erakutsi zizkioten eta bi irudi itzuli: ernatu aitzineko momentuaren isla eta hil ondorengo bere irudia. Bietan betazal itxiek, bietan denboraz kanpo.

Denboraz kanpo dagoen irudi guzia, letra debekatu oro betazalen itxi-irekian gordetzen da, argazki kameraren obturadorearen klik-klik arinean.

Errepresentazio guzietara berandu iristen gara, irudi bakoitza gure betazaletan margotutako hizki bat bezalakoa da, hortarako prestatu gabe gauden arren.

Denbora segunduetan neurtzen da, inoiz ez lehenbizikoetan, hau da, beti berandu ailegatzen gara. Inoiz ez dugu gure aurpegia ikusi ernatu aintzineko instantean, eta ez dugu eginen heriotzaren ondorengo unean; Baina denbora tarte ñimiño hori bizitza osoaren baliokidea da. Azken batean, inoiz ez dugu bat-batean gertatu dena ikusteko ahalmenik izan, bertzela, hizkiak, bizitzaren erranahia idazteko erabiltzen dugun kodeak, Ateh printzesak bere betazaletan idatzia zuen horrexek, errotik aterako gintuzkeelako. Baina, gatzeko ispiluak lantzeko moduak daude, berandu ailegatzeko horren inguruan solastatzeko moduak. Ezezaguna zaigun hori, jazariar alfabetoa, islatzen duten ispilu motelak edo arinak. Forma horiek dira norabide guzietan eta aldiberean bakar batean ibiltzeko sortzen ditugun labirintuak. Denboraren senik ez izateko, eta ondorioz denboran galtzeko.

Ricardo Vicente

"Lo que llega posee tan adelanto sobre lo que pensamos, sobre nuestras intenciones, que jamás podremos alcanzarlos, ni jamás conocer su verdadera apariencia"

Rilke ( de La Estética de la desaparición, Paul Virilio).

Las crónicas sobre el "Diccionario Jázaro" de M. Pavi\_ hablan de una princesa, Ateh. Sus párpados estaban pintados con las letras del alfabeto jázaro, tan sublimes como asesinas. Nadie podía mirar su rostro, pues la muerte le llegaría inminente.

Un día recibió un regalo especial. Eran dos espejos tallados en sal: uno lento que refleja el pasado y otro rápido que mostraba el futuro. Al despertar una mañana, se miró en ellos y cayó fulminada.

Los espejos mostraron las letras del alfabeto y le devolvieron el reflejo del momento antes de despertar y la imagen de ella misma muerta. Ambos con los párpados cerrados, los dos fuera del tiempo.

Toda imagen fuera del tiempo, toda letra prohibida se oculta en el abrir y cerrar de los párpados, en el veloz clic-clic del diafragma de la cámara fotográfica. Llegamos tarde a toda representación. Cada imagen supone algún tipo de letra pintada en nuestros párpados, algo para lo que no estamos preparados.

El tiempo se mide en segundos y nunca en primeros, esto es, llegamos tarde. Nunca hemos mirado nuestro rostro en el momento anterior a despertar ni lo miraremos en el instante posterior a la muerte; pero ese fragmento insignificante de tiempo corresponde a la vida entera. En definitiva nunca hemos visto a tiempo real nada de lo que ocurre, de lo contrario las letras, el código en el que se cifra el significado de la vida, ese que llevaba pintado la princesa Ateh en los párpados, nos la arrancaría de cuajo.

Pero hay formas de tallar espejos en sal, formas de hablar de ese llegar tarde. Espejos lentos y espejos rápidos que muestran lo prohibido, los alfabetos jázaros.

Esas formas son los laberintos creados para caminar en todas las direcciones y en ninguna a la vez. Para no tener un sentido temporal, y por ello perderse en el tiempo.

Ricardo Vicente

gerra ondorengo paisaia / a postwar landscape DVOR O2

gainera erortzen zaigu, denbora, txoriak ihesi doazen bitartean. Gainera erortzen zaigu, denbora, bonbardaketaren zaratak inguru guztia oihartzun batean betetzen duen bitartean. Gainera erortzen zaigu, denbora, tankeen gurpilek dena errausten duten bitartean. Oinutsik iraungo dugu elkarrekin, denbora, memoriaren errautsen gainean oinak erreaz. Atzoko suen hausterrek oraindik erretzen badute ere goazen aurrera.